**DOKTOREGO TESIAK EUSKARAZ DEFENDATU AHAL IZATEKO BEHAR DIREN INTERPRETAZIO LANAK EGITEKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA 2024. URTEA**

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak diru laguntzetarako deialdia egitea erabaki du doktorego tesiak euskaraz defendatzeak defentsa eguneko interpretaziorako sortzen dituen gastuetan laguntzeko.

**1.- DEIALDIAREN HELBURUA**

Diru laguntzetarako deialdia egiten da doktorego tesiak euskaraz defendatzeak sortzen dituen interpretazio gastuetan laguntzeko.

Euskarak gutxienez defentsaren % 45a bete badu, tesia euskaraz defendatu dela joko da. Bestalde, graduko aktan defentsan erabili diren hizkuntzak jasota geratuko dira, eta bakoitzaren ehunekoa.

Defentsa egunean egingo den aldi bereko interpretazioan laguntzeko, **gehienez ere, eskaera egiten den unean indarrean dagoen kontratu publikoan lan mota horretarako ezarritako kopurua ordainduko da. Ez da ordainduko interpretazioa egiteko gela atontzeko gasturik.**

**CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA LOS TRABAJOS DE INTERPRETACIÓN NECESARIOS PARA LA DEFENSA EN EUSKERA DE TESIS DOCTORALES AÑO 2024**

El Vicerrectorado de Euskera, Cultura e Internacionalización considera necesario publicar una convocatoria de subvenciones para ayudar en los gastos que conlleva la labor de interpretación en la defensa de las tesis doctorales en euskera.

**1.- OBJETO DE LA CONVOCATORIA**

Se convocan subvenciones para la ayuda en gastos de interpretación para la defensa en euskera de tesis doctorales.

Se considera que la defensa de la tesis se ha realizado en euskera cuando al menos un 45% de la misma se realiza en euskera. Además, en el acta de grado han de constar los idiomas que se han utilizado y el porcentaje de cada una de ellas.

La ayuda para la Interpretación simultánea el día de la defensa será como **máximo la cantidad consignada para este tipo de trabajos en el contrato público en vigor en el momento de la solicitud. No se abonarán gastos relacionados con el acondicionamiento del aula para la interpretación.**

Doktoregaiak hala eskatzen badu, eta Euskara Zerbitzuaren posibilitateen arabera, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak laguntza eskainiko die gurakoei baliabideak bilatzerakoan, tesiaren defentsa egunean aldi bereko interpretazioa egiteko.

En caso de que el doctorando o la doctoranda lo solicite, y en la medida de las posibilidades del Servicio de Euskera, desde el Vicerrectorado de Euskera, Cultura e Internacionalización se ayudará a los y las solicitantes en la búsqueda de los medios necesarios para llevar a cabo la interpretación simultánea en la defensa de la tesis.

Deialdi honi buruzko edozein zalantza argitzeko, mezu elektroniko bat bidaliko da honako helbide honetara: itzulpengintza.zerb@ehu.eus

Para cualquier aclaración de la presente convocatoria, se enviará un correo electrónico a la siguiente dirección: itzulpengintza.zerb@ehu.eus

## 2.- ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute 2024ko urtarrilaren 2tik abenduaren 31ra bitartean UPV/EHUn tesia euskaraz defendatzen duten guztiek.

## 2.- REQUISITOS DE LOS SOLICITANTES

Podrán tomar parte en esta convocatoria quienes defiendan en euskera la tesis doctoral en la UPV/EHU entre el 2 de enero y el 31 de diciembre de 2024.

## 3.- ESKARIEN AURKEZPENA

3.1. Eskaria deialdi honekin batera doan inprimaki betez egingo da. Deialdia eskuragarri dago Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzan eta web orrian: http://www.ehu.eus (Euskara - Deialdiak - Indarrean dauden deialdiak)

3.2. Eskariak aurkezteko epea: **2024ko abenduaren 1era arte.**

3.3. Eskaria eta behar diren dokumentuak tesia **defendatu aurretik** aurkeztu behar dira. Ez da onartuko defentsa egin ondoren aurkezturiko eskaerarik.

## 3.- PRESENTACION DE SOLICITUDES

3.1. La solicitud se formulará en el impreso que acompaña a esta convocatoria. La convocatoria está disponible en el Vicerrectorado de Euskera, Cultura e Internacionalización y en la página web: http://www.ehu.eus (Euskera - Convocatorias- Convocatorias en vigor)

3.2. Plazo para la presentación de solicitudes: **hasta el día 1 de diciembre de 2024.**

3.3. La solicitud y los documentos necesarios deberán ser presentados **antes de la defensa** de la tesis. No se admitirán las solicitudes presentadas con posterioridad a la defensa de la tesis.

3.4. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazitakoaren arabera, eskaera eta dokumentuak ezarritako epearen barruan aurkeztu behar dira, ahal den guztietan UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bitartez:

https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean "Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza" aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: a) Izenperen ziurtagiri digitala; b) UPV/EHUren txartela (Izenpe); c) NAN elektronikoa; edo, d) Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, beste toki hauetan ere aurkeztu ahal izango da eskaera: a) sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan; b) erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren edo sektore publikoko edozein erakunderen bulegoetan, aurrez aurre, funtzionario publiko gaituaren bidez; c) posta bulegoetan; eta, d) Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.

Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurrez aurre aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean

3.4. De conformidad con lo establecido en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la solicitud y su documentación deberá presentarse dentro del plazo establecido, preferentemente a través del registro electrónico de la UPV/EHU ubicado en la dirección URL https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico, eligiendo en "Destino" de la solicitud al Vicerrectorado de Euskera, Cultura e Internacionalización. Para ello se deberá utilizar alguno de los siguientes sistemas de identificación electrónica: a) Certificado Digital de Usuario de Izenpe, b) Tarjeta Universitaria de la UPV/EHU (Izenpe), c) DNI electrónico o d) Certificado de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre FNMT-CERES.

Asimismo, podrá presentarse: a) en los restantes registros electrónicos de cualquiera de las entidades pertenecientes al sector público b) presencialmente en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU o de cualquier otra entidad perteneciente al sector público, a través de persona funcionaria pública habilitada c) en las oficinas de Correos, y d) en las representaciones diplomáticas u oficinas consulares de España en el extranjero.

Las solicitudes y documentos presentados de manera presencial en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU serán digitalizados para su incorporación al expediente administrativo electrónico, devolviéndose los originales a la persona interesada, previa

identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

identificación ante la persona funcionaria y otorgamiento de consentimiento expreso para esta actuación, de conformidad con la resolución del Secretario General de la UPV/EHU de 28 de abril de 2021, por la que se aprueba la instrucción sobre oficinas de asistencia en materia de registros, la presentación en la UPV/EHU de solicitudes, escritos u otras comunicaciones a través de persona funcionaria pública habilitada y el registro de personas funcionarias públicas habilitadas.

3.5. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

a) NANaren fotokopia.
b) Doktoregaiak bere kabuz kontratatuko balu, Interpretazioaren aurrekontua,

3.5. Documentación a presentar junto con la solicitud:

a) Fotocopia del D.N.I.
b) En caso de que lo contrate directamente el doctorando o doctoranda, presupuesto de la interpretación.

3.6. Tesia defendatu ostean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Interpretazioaren faktura non agertu behar den ordainduta dagoela, doktoregaiak kontratatu badu, edo ordaindu dela frogatzen duen agiria.

3.6. Documentación a presentar una vez realizada la defensa de la tesis:

a) En caso de que la interpretación la haya contratado el doctorando o doctoranda, factura de la misma donde se indique que está pagada o el comprobante de haberla pagado.

3.7. Tesi defentsa egin ostean, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak ofizioz eskatuko du Doktore graduaren aktaren kopia bat. Bertan, tesia euskaraz defendatu dela jasota egon behar du, eta bere portzentajea.

3.7. Después de la defensa de la tesis, el Vicerrectorado de Euskera, Cultura e Internacionalización recabará de oficio una copia del acta de grado de Doctor. En la misma deberá constar que la defensa ha sido realizada en euskera y su porcentaje.

3.8. Eskabidea aurkeztean, doktoregaiak ontzat ematen ditu deialdiaren oinarriak

3.8. La presentación de la solicitud implicará la aceptación de las bases de la convocatoria.

**4.-ERABAKIA**

**4.-RESOLUCION**

Behin tesia defendatu dela eta deialdian agertzen diren baldintzak bete direla egiaztatu eta gero, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak erabakia egingo du, non diru laguntzaren zenbatekoa ezarriko eta doktoregairi jakinaraziko zaion.

Una vez realizada la defensa de la tesis y constatar que la misma cumple con los requisitos exigidos en esta convocatoria, el Vicerrectorado de Euskera, Cultura e Internacionalización emitirá resolución que fijará el importe de la subvención que le corresponde, la cual será notificada al solicitante.

**5.- DIRU LAGUNTZAREN ORDAINKETA**

Ordainketa honela egingo da:

Interpretazioa Euskara Zerbitzuak kontratatu badu, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak zuzenean ordainduko dio interpreteari.

Doktoregaiak berak kontratatu badu interpretea, interpretazioaren faktura non agertu behar den ordainduta dagoela edo ordaindu duela frogatzen duen agiria aurkeztu behar du. Errektoreordetzak doktoregaiari ordainduko dio deialdi honetan 1.2 puntuan agertzen den diru kopurua, gehienez.

**5.- PAGO DE LAS SUBVENCIONES**

El pago se efectuará de la siguiente manera:

En caso de que la interpretación haya sido contratada por el Servicio de Euskera, el Vicerrectorado de Euskera, Cultura e Internacionalización efectuará el pago directamente a el o la intérprete.

Si ha sido el doctorando o doctoranda el que ha contratado la interpretación, deberá presentar la factura del trabajo realizado donde se indique que está pagada, o justificante de haber abonado la misma. El Vicerrectorado abonará como máximo la cantidad indicada en el punto 1.2 de la presente convocatoria al doctorando o doctoranda.

**6.- BATERAGARRITASUNAK**

Diru laguntza hau bateragarria izango da Estatuko zein nazioarteko administrazio publikoek edo horiei atxikita zein horien mende dauden erakunde publikoek emandako beste laguntza batzuekin, baina laguntzen zenbatekoa ezingo da handiagoa izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino, ez banaka hartuta, ez beste laguntza batzuekin batuta.

**6.-RÉGIMEN DE COMPATIBILIDADES**

La percepción de esta subvención será compatible con otras ayudas o subvenciones que pueda conceder cualquier Administración Pública, entidades públicas adscritas o dependientes de la misma, tanto nacionales como internacionales, sin que aisladamente o en concurrencia con otras, puedan superar el coste total de la actividad objeto de subvención.

**7.- INTERPRETAZIOA**

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak baimena dauka deialdi honetako arauak argitzeko, bai eta horiek ezartzeko behar diren beste arau batzuk emateko ere.

**7.- INTERPRETACIÓN**

La Vicerrectora de Euskera, Cultura e Internacionalización queda autorizado para aclarar las normas contenidas en esta convocatoria, así como para dictar otras que sean necesarias para su aplicación.

**8.-ERREKURTSOAK**

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta bere aurka, nahi izanez gero, interesatuak berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeari hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango du administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegian, bi hilabeteko epean, aipatutako egunetik kontatzen hasita.

**8.-RECURSOS**

Contra la presente Convocatoria, que agota la vía administrativa se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante la Vicerrectora de Euskera, Cultura e Internacionalización, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación, o recurso contencioso-administrativo ante la jurisdicción de lo Contencioso-Administrativo que corresponda en el plazo de dos meses contados de igual forma.

Leioan, 2024ko otsailaren 6an

En Leioa, a 6 de febrero de 2024

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea/
La Vicerrectora de Euskera, Cultura e Internacionalización

34086833M MARIA JUNCAL GUTIERREZ (R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por 34086833M MARIA JUNCAL GUTIERREZ (R: Q4818001B)
Fecha: 2024.02.06 08:06:09 +01'00'

Izptua.:/Fdo.: M. Juncal Gutiérrez Mangado